

KONTSULTA PUBLIKOAREN GAINEKO TXOSTENA, FORU AGINDU HAU ALDATZEKO DEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUA PRESTATU AURREKOA: 161/2001 FORU AGINDUA, APIRI-LAREN 25EKOA, B MAILAKO IRAKASLE FINKOEN LANBIDE PRESTAKUNTZA ETA HOBE-KUNTZA A MAILAKO LANPOSTUETARAKO.

2021eko uztailaren 30ean argitaratu zen aipatutako aurretiko kontsulta. Ekarpen bakarra egin zaio abuztuaren 19ra bitartean.

R.-k irakasleen prestakuntzari egindako ekarpena. Adierazten du "Irakasleek unibertsitateko prestakuntzarik balute ados egonen litzatekeela".

161/2001 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezartzen da A maila edo taldeko irakasle lanpostu bat eskuratzeko langileek egiaztatu beharko dutela zerbitzu aktiboan egoteko behar izan zituzten titulazio akademikoak ez diren beste batzuk badituztela eta titulazio horiek goragoko maila edo talde batekoak direla.

A maila edo taldean sartzeko lizentziadun, ingeniari edo arkitekto izateko unibertsitateko titulua beharko da, abuztuaren 30eko 215/1993 Foru Dekretu Legegilearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera. Foru dekretu legegile horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu batgina.

Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran eskura daitezkeen postuek bat egin behar dute Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako espezialitateetakoekin, den-denak A mailakoak. Beraz, postu horiek eskuratu nahi dituztenek unibertsitateko prestakuntza beharko dute izan.

Iruñean, 2021eko irailaren (e)an.

LANGILERIAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Javier Lacarra Albizu